



II. ERANSKINA.

2023. URTEKO KONTUAK EGITEKO ZIRKULARRA

LEHENENGO PUNTUA:

2023rako Tokiko Kontuen Eredua eskuz osa daiteke (boligrafoz) edo ordenagailu bidez, Excel formatuan.

Excel eredu-orria ondoko helbide honetan deskarga daiteke: [Finantza-babesa \(araba.eus\)](https://web.araba.eus/finantza-babesa), “Kontzejuen, erkidegoen, ermandadeen, partzuergoen eta beste toki erakunde txiki batzuen urteko kontuak” atalean.

The screenshot shows a web browser window with the URL <https://web.araba.eus/finantza-babesa>. The page title is "Toki erakundeen finantza babesa". The content includes a search bar, a list of services, and a link to "Kontzejuen, erkidegoen, ormandadeen, partzuergoen eta beste toki erakunde txiki batzuen urteko kontuak" which is circled in blue.

Kontu horiek betetzeko lana errazte aldera, eredua posta elektronikoz bidal dakieke nahi duten erakundeiei.

Horiek errazago egiteko, Arabako Foru Aldundiak kontuak idazteko dohaineko aholkularitza zerbitzua eskaintzen du, interesaturik dauden administrazio batzarren arduradunekin bisita bat hitzartuta.

Zerbitzu hau erabiltzeko edo horren funtzionamenduari buruzko informazio gehiago eskuratzeko interesa duten administrazio batzarrek bisita hitzartu beharko dute telefono honetara deituta: **945 18 18 18**.



Kontuak bete ondoren, **2024ko martxoaren 1a baino lehen** onartuko ditu kontzejuak eta jendaurrean jarriko dira, eta horretarako erabili ohi den lekuan dagokion iragarkia jarri ondoren, hamabost baliodun eguneko epean, erreklamazioak aurkeztu ahal izango dira.

Erreklamazioen bat aurkeztuz gero –idatziz aurkeztu beharko da administrazio batzarreko lehendakariari zuzenduta– kontzejua berriro bilduko da eta horren gaineko ebazpena emango du. Ondoren, erreklamazioen eta horien ebazpenaren kopiak bidaliko dizkio Foru Aldundiari urteko kontuekin batera.

Kontuen izapidetzea, Kontzejuen Foru Arauaren 40. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, **2024ko maiatzaren 1a** baino lehen horiek Foru Aldundira, Lurralde Orekaren Zuzendaritzara, bidaltzearekin amaitzen da. Hori bete ezean, **Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funtseko esleipenaren zenbatekoaren % 50eko atxikipena egingo da.**

BIGARREN PUNTUA: KONTUAK BETETZEKO ARGIBIDEAK

1º- **Kontuen karatulan**, beheko eskuinaldean **harremanetarako pertsonaren izena eta telefonoa** jarriko ditugu (normalean, administrazio batzarreko lehendakaria), sor daitezkeen zalantzak bizkorrago argitzeko.

2º- **Sarreraren eta gastuen egoeren** orrietan, orri etzan horietara transkribatuko lirateke libretetako oharra, sarreretako edo gastuetako eragiketak beren izaera ekonomikoaren arabera bereizita, haien zenbatekoa dagokion zutabearen jasota.

3º- Orri bakoitzaren lehenengo zutabearen (dataren zutabea) Finantza Erakundearen **libretan ageri den eragiketaren data erregistratuko** da (eguna/hila). Hala ere, aukerakoa da data adieraztea.

4º- Bigarren zutabearen (Kontzeptua), labur-labur adieraziko da eragiketaren kontzeptua; sarrera edo gastu eragiketaren kontzeptuaren deskribapen laburra egingo da.

5º- Hurrengo zutabeak libretetan ageri den eragiketa bakoitzaren zenbatekoa jartzeko dira, sarrera edo gastuaren izaeraren arabera. Azkeneko zutabea (“Bestelakoak”) komodin gisa erabiliko litzateke, hau da, bertan jarriko litzateke eragiketaren zenbatekoa, baldin eta ez badakigu sarrera edo gastu horren izaera aurreko zutabeetan jasotako kontzepturen batekin bat datorren ala ez. Hala ere, ***zutabe bakoitzean zein kontzeptu ekonomiko sartuko liratekeen argitzeko orri orientagarri bat erantsi dugu.***

6º- Kontuen azken orrian (“Kontuen laburpena”), honakoak jasoko dira:

- a) Libreten 2022/12/31ko hasierako saldoen batura.
- b) Sarreraren guztizko batura (sarreraren orrietako zutabe guztietan jasotako zenbateko guztien batura). 2023ko sarrerak, 2023ko urtarrilaren 1ean zegoen diruzaintza kontatu gabe, zenbateko hori aurreko a) atalekoa baita.
- c) Gastuen guztizko batura (gastuen orrietako zutabe guztietan jasotako zenbateko guztien batura).

Behean, “Kutxan dagoena egiaztatzea” jartzen duen lekuan, kontu bakoitzaren hasierako eta amaierako saldoak zehaztuko dira berriz ere, bereizita. Horrez gain, kontu edo libreta bakoitzaren zenbaki osoa idatziko da.

Horrez gain, kontuen azken orri horretan, “Kutxan dagoena egiaztatzea” atalaren azpian, **“Kontzejuaren zorpetzea”** atala gehitu da; bertan jasoko dira, lerro bakoitzean, 2023/12/31n indarrean dauden mailegu eragiketetako bakoitzaren datuak (foru lerroak eta maileguak).



Azkenik, **derrigorrean** bete behar da azken orriaren bukaerako zatia (laburpen orria), non argi eta garbi adieraziko den **erreklamaziorik egon den ala ez, data eta lehendakariaren eta idazkariaren sinadurarekin batera.**

HIRUGARREN PUNTUA: ATXIKITAKO ZENBATEKOAK KONTUETAN ISLATZEA

Lurralde Oreka Zuzendaritzak, kontzejuen kontuak aztertzerakoan, ikusi du Toki Erakundeak Finantzatze Foru Funtsetik (TEFFF) jasotzen dituzten zenbatekoak sarreretan sartu direla, egin dituzten baina aipaturiko TEFFFetik konpentsatu zaizkien gastuak gastuetan jaso gabe.

Zehazki, eta zuzendaritza honi eragiten dionari dagokionez, diru kopuruak atxikitu zaizkio aseguru primengatik (aldundi honek kontzejuen alde hitzartutako sisteman sartuta egonez gero) edo TEFFFen likidazio negatiboagatik.

Nola islatu behar dira atxikipen horiek kontuetan? **Sarreraren egoeran kontabilizatuko da kontzejuari dagokion TEFFFaren gutzitako zenbatekoa** eta, aldi berean, gastuen egoeran islatuko dira aurrezki libretetan mugimendurik izan ez duten arren harentzako **gastua edo gastuak eragin dituzten zenbatekoak.**

Orientatzeko, hona hemen azaldutakoa erakusten duen adibide bat.

X kontzejuak 1.803,04 euroko TEFFF sarrera badu, baina aurrezki libretan 1.354,28 euro bakarrik jaso baditu aurreko ekitaldiko TEFFFen likidazio negatiboaren 300,51 euro eta Aldundiak hitzartutako aseguruarengatik 150,25 euro atxiki zaizkiolako, aipaturiko kontzejuak 1.803,04 euro jarriko ditu sarreretan, eta likidazio negatiboaren 300,51 euro eta aldundiak itundutako aseguruarengatik 150,25 euro gastuetan.

Sarrerak	Zenbatekoa	Gastuak	Zenbatekoa
TEFFF	1.803,04 €	Aurreko ekitaldiko likidazio negatiboa	300,51 €
		Aldundiaren aseguru	150,25 €

Horrela, libretan 1.352,28 euroko zenbateko garbia bakarrik ikusi arren, honela kontabilizatuko da zenbateko hori:

Sarreraren orrian 1.803,04 euroko zenbatekoa erregistratuko litzateke.

Gastuen orrian 300,51 eta 150,25 euroko zenbatekoak erregistratuko lirateke.

LAUGARREN PUNTUA: FINANTZA INBERTSIOAK ISLATZEA (ALTXORRAREN LETRAK, EPEKAKO GORDAILUAK, INBERTSIO FONDOAK, ETAB.)

Zutabe horren helburua da finantza inbertsioak direla-eta egin diren diru itsuldaketen zenbatekoak zutabe horretan jasotzea. Hau da, kontzeju batek diru kopuru bat bere libretatik ateratzen badu errentagarritasun handiagoko inbertsio fondo edo gordailuetan sartzeko, itsuldaketa hori gastuen orriko finantza inbertsioen zutabearen islatzen da. Gero, dirua berreskuratzean, libretako sarrera hori sarreraren orriko finantza inbertsioen zutabearen islatuko da.

Hauxe da arrazoia: kontzeju bakoitzari deskontatzen zaion aseguru primaren kalkuluan garrantzi handia du kontzeju bakoitzak egindako gastuaren zenbatekoak; gastu horrek erreala izan behar du, ez



finantzarioa. Era horretan, adibidez, kontzeju batek libretan milioi bat euro baditu eta altxorraren letretan edo beste fondo mota batean inbertitzea erabakitzen badu errentagarritasuna ateratzeko, libretako diru irteera hori gastu gisa erregistratzen da, baina, berez, gastu hori ez da erreal, diruzaintzako mugimendu bat baizik, eta ez da kontuan hartu behar aseguru prima kalkulatzeko. Horregatik, garrantzitsua da gastu hori gastuen orriko finantza inbertsioen zutabearen erregistratzea, aseguru primak kalkulatzekoan zenbateko hori kontuan ez hartzeko.

Aurrez azaldutakoa zure erakundearen kontuak prestatzeko lagungarri izatea espero dugu.